

telebista ♦ irratia

Droga izango da ‘Documentos TV’ saioaren ardatza

Vilanova de Arousako familia askoren egoeraren berri emango dute

Erredakzioa / Donostia

Pedro Erquiciak La2-en aurkezten duen saioan, Vilanova de Arousan drogak eragin duen tragedia aztertuko dute gaur iluntzean. Gainera, Necora auzian dagoen lekuko nagusiaren adierazpenak emitituko dituzte.

NECORA auziko lekuko nagusiak, Manuel Fernandez Padin-ek, lehenengoz hitz egingo du kameren aurrean, gaur iluntzean, 20:00etatik aurrera, *Marea blanca* izenburuko dokumentalean. Lekuko horrek hamar urte daramatza ezkutatuta bizitzen, eta egunero 24 orduz poliziak zaintzen du, inork hil ez dezan.

Gaurko erreportaiak, gizon horrek esandakoak jasotzeaz gain, Galizian drogaren arazoa nola bizi den azalduko digu.

Horretarako, egunero drogarekin harremanetan bizi behar duen herrira jo dute kazetariak, Vilanova de Arousara hain zuzen ere. Bertan, gazteen belaunaldia osoa hil da drogaren eraginez. Irudietan ikusiko denez, tradizioz arrantzalea izan den herriak arazo larria du, itsasotik sartzen den drogak familia askotan benetako dramak sortarazi dituelako.

Izan ere, tabakoaren kon-



MIGUEL RIOPA

Manuel Charlin narkotrafikatzailea, Cambadoseko epaitegitik irteten.

trabandoa urteetan egin da herrian, baina droga trafikoa herriko gazte asko hil ditu. Baltasar Garzonek Necora auziaren gorabeheren berri eman zuenean, Galiziako hainbat familia negozioan sartuta daudela jakin zen. Herriaren binoioen berri emango dute gaur: droga eta dirua, boterea eta senitartekoekiko lotura, maitasuna eta traidioa.

Erreportaia Julio Azkaratek ekoitzi du eta Joaquín Pedrido eta José Ángel González egin dute.

Ekoizpen propioa

Documentos TV saioa orain 14 urte emititzen hasi ziren, TVE-n, eta, orain arte behintzat, mundu osotik iritsitako kalitatezko dokumentalak eman ditu. Baina urte berriak aldaketak ekarri

ditu: 2000. urtean erronka berriari aurre egin nahi dio eta, horregatik, urtarrean emitituko diren dokumental denak eurek ekoiztutako produktuak izango dira, eta ez kanpokoak.

Horrela hasi nahi du urtea jada beteranoa den saio horrek. Gaurkotasun handiko gaiak landuko dituzte, igandero, betiere ikuslearengandik gertu egoteko asmoari erantzunez.

laburrean

‘Sorginen laratza’ oporretatik bueltan

Xabier Euzkitzek aurkezten duen saioa ETB1eko programazioan izango da berriro, bihurtik aurrera. Astelehena izanik, futbolari buruzko solasaldia izango da saioan, Xabier Azkargorta eta Ainhoa Goikoetxearen eskutik. Gonbidatu berezia Joseba Llorente Realeko jokalaria izango da. Horrez gain, Euzkitzek Maria Jesus Azkue astrologoa elkarrizketatuko du; Bizkaiko Astrologia Elkartearen presidentea da Azkue, eta saioari karta astrala egingo dio eta 2000. urtean zer etorriko den argitzen saiatuko da. Musikaren tartean, Bar-

tzelonako Color Humano taldea izango da: hainbat herritako kideek osatzen dute talde hori eta garrantzi handia izan zuen 80ko hamarkadan. Bestalde, Claudio Landa eta Irene Etxeberriak ere parte hartuko dute saioan, ohikoa denez.

Aldaketak ‘Señorio de Larrea’-n

ETB2ko telesailak beste ordu batean emango dute aurrerantzean. Izan ere, arratsaldetik gauera pasatu dute. Beraz, 23:30etan hasiko da telesaila, astelehenero, eta hiru atal emango dituzte, bata bestearen jarraian; ordu eta erdi iraungo du guztira, beraz.

Ygor Yebra ‘Forum’-en

Biharko saioan, David Barberok Ygor Yebra dantzaria elkarrizketatuko du. Bilboko dantzariaren ibilbide profesionalari errebasoa egingo diote saioan, eta azken emanaldien berri ere emango dute.

Bilboko Erakustazoka

Juan Garaiurrebaso Bilboko Nazioarteko Erakustazokako zuzendaria izango da biharko gonbidatua *El punto...* saioan. Besteak beste, Erakustazoka tokiz aldatzeaz solastuko dira.

aditza badut ♦

Xabier Lasa

Badoaz

Ataño • Salvador Zapiain idazle zenduaren bizikera bezain apala izan da hedabideetan haren heriotzak izan duen oihartzuna. Aita, ama eta Txirritaren ahotik sukaldetan jaso zuen herri-euskara orriratu zuen idazlearen oroimena tajuz oheratu zuen Eik, Errege egunean. Gau tertulialariak eta beren gai politiko errepikariekin behar zuten ordu eta tokian, M. K. Odriozolak 94an egin zion elkarrizketa kokatu zituzten. Askari izan zen igarri ahal izateko Atañoaren idatzien ikutu nostalgikoa eta mingarria. Izan ere, belaunaldi berrioi, oharkabe eta oihartu nahi gabe, badoakigu bizi-filosofia bat, bizi-betegarri zaizkionak baratza-aren zainketak, lagun tertuliek eta Auspoko idatziek. Haren gizatasuna zabaltzeko asmoz ala betelanen premian zelako jaiegunek irratiprogramazio hustua eman ote zuten solasa da gera dakigukeen zalantza.

Iparragirre • Sentimendu kontrajarriak datozkit EITBko Sariak heldu aldiro. Eraman-errazekoez ez beste inork ez du auzitan jarriko, filosofian eta emaitzetan, erritu hau ez denik autosariketa; hots, gaur niri bihar zuri lempaean etxekoentzat burutzen den oparibanaketa telesolidarioa. Baina era berean, urtez urteko irratisaritu ia guztiak lan duin sarigarrien jabe izan ohi dira, egiazki. Hala, koak ditugu Roge Blasco, *Goizen Behingo* informatzaileak eta Itziar Alduntzin eta Roberto Oñaederra musika jartzaileak.

Maradona • Sentsazionalismo merkeenara jo da beste behin. Albistegiek, erreazio atabiko-instintibo batez, polizi-galdeketa setiatu dute ospitaleko atezaina, kokainazale epaituaren begiondo salatarien preskisan. Gertaeren puntta zorroztaile mediatikoez, berriz, idoloen arrakasta-porrotaz filosofatu dute soilik. Inori ez zaio otu galdegitea non den intimitate eskubidea, edo zein perbertsio duten futbol-espektakuluak eta hedabideek halako gizaki idolatratu-ezorekatuak erdi ditzaten.